


OCW

AUTOEBALUAZIORAKO PROZEDURAK

FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

1. 13/2008ko abenduaren 12ko familiei laguntzeko legean familiaren kontzeptua nolakoa da?


- a) Soilik ezkontzazko familiak hartzen dira kontuan
- b) Espainiako familiak barnebiltzen ditu.
- c) Soilik seme alabak izanez gero da familia bat
- d) Bizikidetzeta guraso eta seme-alaba edo ahaidetasuna badago

2. Zer da familia nuklear funtzionala?

- a) Funtzionala ez den familiaren aurkakoa
- b) Guraso eta seme-alabek osatua
- c) Familia nuklear sinplearen sinonimoa
- d) Familia zabalaren sinonimoa

3. (Ikusi beheko genograma). Bergaran kokatutako Aranaz-Pereda familiari lagundu nahi diozu udaletik. Daukazun informazio apurra genogramatik dakizu. Familia hau...

- a) Berreraikia da
- b) Harrera familia
- c) Familia hedatua edo konplexua da
- d) Familia homoparentala da



1. Irudia. Kurtsoaren egileak eginiko familia baten genograma bat

4. Aranaz-Pereda familia berberarekin jarraituz... Genogramaren arabera, batera edo elkarrekin bizi den familian

- a) Zaharrena neska da
- b) Babesgabatasun arazo larri bat dago
- c) Gurasoek harreman txarra dute seme edo alaba batekin
- d) Bi haur biologiko eta bi haur adoptatu dituzte

5. **Demagun goiko genograman agertzen den familian liskarrak dituztela hurrekin. Eskatu ahal izango lukete Deribazio Judizial bidezko Familia Elkargunea erabiltzea?**
- a) Bai, baldin eta ebazpen judizial bat egongo balitz
 - b) Bai, Beroaren Etxeberdea erabili ahal izango lukete bisitaldi ikuskatuak gauzatzeko
 - c) Bai, baldin eta ingreso minimoak dituztela erakusten badute
 - d) Bai, zeren eta genogramaren arabera aita kartzelan dago eta moduren bat bilatu behar da komunikazioa sustatzeko
6. **Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Planaren helburu edo jomugak hauxek dira:**
- a) Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera erraztea
 - b) Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua erraztea; baita, familiei laguntzea, eta haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza sustatzea.
 - d) Aurreko esaldi guztiak egia dira
7. **Familia aniztasunari buruz informazio interesgarria eskaintzen duten bi webgune dira:**
- a) Familias en positivo eta Bakuva
 - b) Familias en positivo eta Eusko Jaurlaritzaren LGTBI dokumentazio zentro birtuala
 - c) Familiak bai! webgunea eta Eusko Jaurlaritzaren LGTBI dokumentazio zentro birtuala
 - d) Ez dago gai honetan espezializatuta dagoen webgunerik
8. **Egun Euskadin Familientzako indarrean dagoen plana III.ena da.**
- a) Gezurra da, II. Plana dago indarrean
 - b) Gezurra da, Euskadiko udal bakoitzak bere plana duelako, batzuk II. Planean daude eta beste batzuk III.enean
 - c) Gezurra da, 2008.eko Familiei Laguntzeko Legetik plan konkretu bat ez dagoelako
 - d) Gezurra da, 4. Plana da
9. **Eusko Jaurlaritzaren Gurasotasunaren programen atalean**
- a) Gurasotasunaren printzipioetan oinarritutako esku-hartze-programak aurkezten dira eta profesionalek familiekin era praktikoan burutzeko erabili ditzakete.
 - b) Gurasotasunaren printzipioetan oinarritutako esku-hartze-programak aurkezten dira eta publiko orokorrari zuzenduta daude

- c) Soilik 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten familiekin aritzeko programak daude
- d) Soilik 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familiekin aritzeko programak daude

10. Familia-Orientazioa Rios-ek (1994) dioenez...

- a) Teknika-multzo bat da, helburua delarik, familia-sistema familiaren idealera hurbiltzea
- b) Teknika bat da, eta teknika honen bidez orientazio pertsonala, akademikoa, profesionala ematen da
- c) Teknika bat da, *coaching*-aren oso antzekoa
- d) Teknika-multzo bat da, helburua delarik familia-sistema batean dauden kideen arteko binkuluak indartzea

11. Familia-orientazioan mailak bereizi daitezke Rios-en (1993) arabera:

- a) Lau dira, hala nola, hezkuntza maila, asesoramendu maila, tratamendu terapeutikoaren maila eta on-lineko maila
- b) Bi dira, hala nola, hezkuntza-maila eta tratamendu terapeutikoaren maila
- c) Hiru dira, hala nola, hezkuntza maila, asesoramendu maila eta tratamendu terapeutikoaren maila
- d) Bata bestearen oso antzekoak dira eta azken finean ez du zentzu askorik bereizteak

12. Demagun familiak orientatzeko gabinete bat duzula. Familia bat etorri zaizu orientazio eske, izan ere alaba batekin elkarrekintza-arauetan arazoak dituzte. Rios-en (1993) sailkapenaren arabera, zein orientazio mailatan jardungo zenuke?

- a) Hezkuntza mailan
- b) Asesoramendu mailan
- c) Tratamendu terapeutikoaren mailan
- d) Maila komunitarioan

13. Familien Behatokia...

- a) Eusko Jaurlaritzak duen behatoki bat da eta bere egitekoa familiei diru-laguntzak ematea da
- b) Espainiako Ministeritzak duen behatoki bat da eta bere egitekoa familiei diru-laguntzak ematea da
- c) Eusko Jaurlaritzak duen behatoki bat da eta bere egitekoa familia-mota batzuen eta besteen errealitatea aztertzea da, eta 2008ko Familiei laguntzeko legea bete beharrez garatzen diren politikek familietan duten eragina aztertzea
- d) Eusko Jaurlaritzak duen behatoki bat da eta bere egitekoa gaizki pasatzen ari diren familien errealitatea aztertzea da

14. Familia bitartekaria...

- a) Profesional espezializatua, partziala eta independentea da
- b) Profesional espezializatua, inpartziala eta independentea da
- c) Gatazka duten aldeek eskatuta arituko da eta profesional partziala da

d) Nahitaez erabakitzeke eta ebazteko ahalmena du

15. Deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneetan ematen diren zerbitzuak dira...

- a) Soilik babestutako bisitak
- b) Soilik babestutako bisitak eta trukeak
- c) Soilik espetxera, ospitalera edo erresidentziara joateko zerbitzuak
- d) Babestutako bisitak, ikuskaritzarik gabeko bisitak zentroan, trukeak, Familia Elkargunetik kanpoko bisita babestuak, laguntzak espetxera, ospitalera edo erresidentziara

16. Gurasotasun positiboari buruz zein bi erreferentzia garrantzitsu ditugu?

- a) Haezi eta Parentalidad 10
- b) Haezi eta Parentalidad-marentalidad
- c) Haezi eta Gurasotasuna
- d) Gurasotasuna eta Izan ezberdin!

17. Zein abantaila ditu familiak udaletatik laguntzeak?

- a) Aurrehartzeari indartzen da, nahiz eta Foru Aldundian lan-karga handitzen den
- b) Aurrehartzeari indartzen da eta baliabide komunitarioen planifikazioa, gestioa eta koordinazioa hobetzen dira
- c) Ez du abantaila askorik
- d) Babesgabetasuna desagerrarazten du

18. Etxeko bixita batean familia hezitzaileak zein elementu tekniko erabiliko ditu?

- a) Denboraren eta espazioaren erabilpen ona
- b) Denboraren erabilepna ona eta espazioaren modu autoritarioan zehaztea
- c) Denboraren eta espazioaren erabilpen ona, portaeren kontrolerako arauak eta bukatzearen errituala
- d) Elementu tekniko bakarra: Portaeren kontrolerako arauak

19. 'Guía de familias reconstituídas'. Zein erakundek/elkartek argitaratu du?

- a) Save the children-ek
- b) Unaf-ek
- c) Eusko Jaurlaritzak
- d) Junta de Castilla y León-ek

20. Aipatu itzazu doan eta *online*-eko ikastaroak egin ditzakezun bi webgune:

- a) CEAPA eta BAKUVA
- b) CEAPA eta ZUK IKASI
- c) Ez dago doan eta online dagoen webgunerik
- d) EMAKUNDE eta UNESCO